PUBLIZITATE GABEKO KONTRATU BATEN BIDEZ EDATEKO-UREN KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIRAKO KROMATOGRAFO IONIKO BAT EROSTEKO (IRISMEN HANDIKO “Q-EXACTIVE FOCUS” MASEN ESPEKTROMETRO BATEKIN BATERAGARRIA) BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Donostian, 2023ko maiatzaren 5ean

PUBLIZITATE GABEKO KONTRATU BATEN BIDEZ EDATEKO-UREN KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIRAKO KROMATOGRAFO IONIKO BAT EROSTEKO (IRISMEN HANDIKO "Q-EXACTIVE FOCUS" MASEN ESPEKTROMETRO BATEKIN BATERAGARRIA) BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Kontratuaren xedea. 1

2. Eskakizun teknikoak. 1

2.1. AZTERTUKO DIREN PARAMETROAK. 1

2.2. IRIZPIDE INSTRUMENTALAK 2

3. Instalazio eta prestakuntza 2

4. Mantentze-lanak. 3

5. Bermea. 3

PUBLIZITATE GABEKO KONTRATU BATEN BIDEZ EDATEKO-UREN KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIRAKO KROMATOGRAFO IONIKO BAT EROSTEKO (IRISMEN HANDIKO "Q-EXACTIVE FOCUS" MASEN ESPEKTROMETRO BATEKIN BATERAGARRIA) BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Kontratuaren xedea.

Agiri honen xedea da, publizitate gabeko kontratu baten bidez edateko-uren kalitate kontroleko laborategiko kromatografo ioniko bat erosteko (irismen handiko Thermo Fisher Scientific markako "Q-Exactive Focus" masen espektrometro batekin bateragarria), instalatzeko eta martxan jartzeko behar diren baldintza teknikoak zehaztea. Horrela, laborategiaren gaitasun analitikoa handitu nahi da.

2. Eskakizun teknikoak.

2.1. Aztertuko diren parametroak.

Ekipo honi esker, aztertu ahal izango dira zuzenean ur-lagin batetik eta "Q-Exactive Focus" detektagailuari lotuta, ondorengo taulan ageri diren parametroak:

Elementua	Balio parametrikoa	Lan-tartea	Ziurgabetasuna beheko puntuan	Ziurgabetasuna VP eta goiko puntuan
Azido monokloroazetikoa	12 µg/l	1 - 100 µg/l	%50	%35
Azido dikloroazetikoa	12 µg/l	1 - 100 µg/l	%50	%35
Azido trikloroazetikoa	12 µg/l	1 - 100 µg/l	%50	%35
A. monobromoazetikoa	12 µg/l	1 - 100 µg/l	%50	%35
Azido dibromoazetikoa	12 µg/l	1 - 100 µg/l	%50	%35
Bromato	10 µg/l	1 – 100 µg/l	%50	%35
Klorato	0,25 mg/l	0,05 – 10 mg/l	%50	%35
Klorito	0,25 mg/l	0,05 – 10 mg/l	%50	%35
Fluoruro	1,5 mg/l	0,1 – 2,0 mg/l	%40	%20
Kloruro	250 mg/l	5-300 mg/l	%30	%15
Nitrato	50 mg/l	5 – 100 mg/l	%30	%15
Nitrito	0,50 mg/l	0,1 – 1 mg/l	%40	%20
Sulfato	250 mg/l	25 – 300 mg/l	%30	%15
Fosfato	-	0,1 – 2 mg/l	%40	%20

2.2. Irizpide instrumentalak

Erosi nahi den ekipoak ondorengo ezaugarriak izan beharko ditu:

- Irismen handiko Thermo Fisher Scientific markako “Q-Exactive Focus” masen espektrometro batekin eta ekipo honetan instalatuta dagoen sistema informatikoarekin bateragarria.
- Softwareak posible egingo du kromatografo berriaren kontrola.
- Detektagailuarekin konexioa egingo da sistema informatikoaren softwareak kontrolatzen duen sistema baten bidez, eta ekipoari lotutako kromatografoa automatikoki kommutatu ahal izango da edozein momentutan.
- Kanal bikoitzeko ekipoa.
- Disolbatzaileak automatikoki sortzen dituen sistema, tentsio handiko gradientean lan egiteko aukera ematen duena, uraren elektrolisian oinarrituz eta diluziorik gabe.
- Ekipoaren beharretarako ur ultragarbia ekoizteko sistema.
- Pistoi bikoitzeko ponpa, doitasuna eta fluxu-egonkortasuna <%0,1 duena.
- Gehieneko presioa 6000 psi, disolbatzaile-sortzaileekin lanean.
- Lan fluxua gehienez 10 ml/min.
- Pistoien zigiluen garbiketa-sistema automatikoa.
- Disolbatzaileen gasgabetzeko sistema.
- 40 lagin baino gehiago aztertzeko gai den lagin-hargailua.
- Sei bide dituen injekzio-balbula.
- Labearen tenperatura 0,1ºC-tan doigarria.
- Hondoaren eroankortasunaren ezabatze elektrolitikoa (hondakin-eroankortasuna <0,5 µS/cm.
- Eroankortasun-detektagailua, tenperatura aldaketa <0,001ºC

3. Instalazio eta prestakuntza

Ekipoa zerbitzuan jartzea esleipenaren ardura izango da eta ez du inolaz ere gastu gehigarririk eragingo.

Prestakuntza: esleipendunak, langile kualifikatuen bidez, ekipoa behar bezala erabili ahal izateko behar den prestakuntza emango du.

Prestakuntza hiru fasetan emango da:

- Oinarrizko prestakuntza, egun batekoa, ekipoa instalatzen denean.
- Prestakuntza aurreratua (1), metodo analitikoak abian jartzeari zuzendua, 4 eguneko iraupenarekin.
- Prestakuntza aurreratua (2), metodo analitikoak optimizatzeari eta eskakizun teknikoak betetzen direla egiaztatzeari zuzendua, egun bateko iraupena aurreikusten da.

Gutxienez ekipoaren berme epea estaliko duen laguntza teknikorako zerbitzua sartuta dago, ekipoaren ezarpenean ager daitezkeen arazoak konpontzeko eta entsegu-metodoak eta kalitate kontrolaren sistematikak egiaztatzeko balioko duena.

4. Mantentze-lanak

Mantentze-lanak esleipendun izan den enpresako zerbitzu teknikoak egin beharko du. Mantentze-zerbitzuak, gutxienez, ondoren adierazten diren puntuak jaso beharko ditu:

- Urtean gutxienez prebentzio-mantentzerako bisita bat
- Bisita bakoitzean egingo diren lanen xehetasunak
- Telefono bidez laguntza intzidentzietan
- Matxuren konponketa (teknikarien desplazamendua, lan orduak eta aldatuko diren piezak barne)
- Matxura kasuetan erantzun-denborari buruzko informazioa

Enpresak intzidentzia edo matxura jakinarazten denetik gehienez 48 orduko epean bermatuko du konponketarako laguntza teknikoa, piezak eta aplikazioen euskarria.

5. Bermea.

Berme-epea urte baten finkatzen da, ekipoa jasotzen denetik. Bermean sartuta egongo dira: desplazamenduak, piezak, eskulana eta konponketak egiteko behar diren suntsikorrak; hala nola, berme-epean ekipoaren softwareak izan dezakeen bertsio berriak instalatzea eta fabrikatzaileak gomendatze duen urteroko prebentzio-mantentzea egiteko bisita (berme-epearen azken hilabetean egingo da).

Berme-epean egiaztatuko balitz Ekipoak akatsak dituela, AUSAk eskubidea du ondasun desegokiak aldatzeko edo haien konponketa eskatzeko.